



Deba-ko Miren Errose Peña Iriondo (9 urte)

# POXPOLIN

UME-KANTAK

# POXPOLIN

Biltzaille: **Gaztañaga'tar Jesus**

Marrazkiak: **Kortadi'tar Edorta**

Argitaratzaille: **EDILI**



Ikastolen sortzaille dan  
Ziplitria eta Irastortza'tar Eibire  
andereñoen andereñoari  
esker-oparitzat.

Ikastoletako andereño eta  
Irakasleari beren lanerako  
lagungarritzat.

Ikastoletako aurtxo guztieri  
euskalzaletasunaren  
iturritzat.

LEGEZKO GORDAILLU S. S. 593/72

© EDILI

## ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

Ume-kantaz osotutako liburutxo au, zertarako? Eta zergatik onelakoa onela? Bijoazkie zirriborro batzuk Gurasoeri eta Andereñoeri; itz batean, Ezitzailleeri.

POXPOLIN liburutxo onek oso-osorik eta bete-betean nexka-muti-koentzat izan nai du: umetxoekiko kezkaz egiña, aieri begira eratua, beraien onerako antolatua. Guztiz eta zearo «ume-liburu» izan nai du. Amets ausar-tegia, agian, baiñan aurrek beren liburutzat, beren «gauza»tzat artzea izan da bilduma onen antolatzailleen jomuga zabala eta osokoa. Zer-nola gerta-ko, geroak esango.

Nola-nai ere ez da bakarraren lana; elkar-langintzan mamitua dala esango nuke batere gezurrik gabe. Areago oraindik: zor zaien egia askori aitortu bearrean arkitzen naiz. Egia aitortu ez-ezik, eskerrik onena azaldu ere bai.

Zipitria eta Irastortza'tar Elbire Andereñoak urte asko-askoren bu-ruan egindako aukera dala esan bear: iru-lau urteko aurtxoentzat egokiena dan guztiaren billa egindako aukera, ain zuzen ere. Gero aren jarraitzai-lleek ikastaro bakoitzean adin ortako umetxoeri irakatsi oi dizkieten aur-abetes-tiak dira: aldiz soil-soillik abestekoak; aldiz jolastuz abestekoak edo-ta abestuz jolastekoak. Ez da, beraz, bat-bateko autapena; ez da gutxi gora-beera eta ardurarik gabe egindako aukeratzea. Autapen onek berekin du urte ugarien buruan tinkaturiko oiñarri sendoa, berekin du ziurtasunik aski.

ORIXE Ikastolako Andereñoeri zor dizkiet abesti-bilduma onen zerrrenda ez-ezik baita guztien itzak ere. Beste Ikastola bakar eta bakan batzuetan ere lortu oi dute lau urtekoen esparrutik irten baiño leenago ume-txoeri abesti-kopuru au oso-osorik irakastea. Nexkato-mutikoen zoramen atsegiñez, gaiñera. Ikusi eta azertu dituzten beste zenbaitek ere —neka-garri gertatuko litzake banaka izendatzea— guztiz aldeko iritzia emen digute.

Azkenik, marrazkieri dagokienez, ardura aundia erabili du gure Kortadi'tar Edorta marrazlari trebeak, bere buruaz bakarrik ausartzeko orde, beste zenbaiti iritzia eskatu dienean. Marrazlari ikasiagoeri, ezitzaille ospetsueri eta gogo-aztertzaile bat baiño geiagori ainbat eta ainbat galdera egin ondoren burutu ditu marrazkiak; eta auen antolaketa osoa ere berberak egin du, liburugintza aurrera ateratzekoan.

.....

Jomuga zeatzagorik ere artu dugu begien aurrean. Eta aurrena, bete-betean ume-kantak izan ditezela. Gogoan dut, ain zuzen, Lekuona'tar Manuel jaunaren itzaldi bat gai oni buruz emana. Umeentzako abestiek «ume-kanta» izan bear dutela, alegia. An jalkitzen ditu zenbait arrazoi, argitasun eta adibide guztiz burutsuak. Izan ere, aurtzarotik, urtez beintzat, aspalditxo irten giñanok, oso erraz uste genezake, guri atsegin zaizkigun abestiak umetxoentzat ere egokiak lirakela. Eta, jakiña, ortan gure neurriak ez du balio aurtxoentzat.

Aurka-abestiak, gogorkeriazkoak, ezezkoiak eta ukatzaileak, alderdi-abestiak, asarrezkoak... nork argibidetu ote lezake benetan «ume-kanta» diranik? Nork argibidetuko, onelakoak dirala, umetxoak beren askatasunean eta nortasunean landutzeko biderik egokiena? Guri ezer gutxi adierazten diguten marrazkiak —aurrerago esango dugunez— aietxek dira umetxoentzat aberatsenak, aietxek dira berenak eta aietxen bidez argitaratzen dute beren barru-giroa. Gauza bera gertatzen zaie abesti-arloan ere; elduak itz eta esakun sakonen billa dabilizan bitartean, nexkato-mutikoak guztiz beste-lako zerbaiten egarri.

Oraingoz lenengo bilduma da au; geroxeago etor diteke bigarrena; baita urrena bestea eta besteak ere.

.....

Bigarren jomugatzat, berriz, irakur-liburu egitea. Eta emen beste arazo sakon baten aurrez-aurre arkitzen gera: irakurtzen ikasteko liburua. Ez da txantxetako gauza. Aurrarentzat nekerik gutxienaz eta erraztasunik aundienaz irakurtzen ikasteari lagunduko dion irakasbidea, alegia. Ontan gero-eta garbiago ikusten dut, izki etenez, izki nagusiz ikasten dutela azkarrenik eta ariñenik, bai idazten bai irakurtzen eta biak batera. Or daude Ferruccio Deva, irakasle Itali'arraren argibideak eta azterketak; or daude baita Robert Dottrens, A. Gesell - F. L. ILG., Helga Eng eta geiagoren aitorenak ere irakasbide beraren babesle ta aldezlari.

Izki nagusiak erabilliaz lantzen dute zenbait Ikastoletan irakur-idazketarako sarrera: batzuek «txotxak» eta besteek beste zerbait darabiltelarik esku-artearen. «Txotxak»... batzuentzat irakasbiderik egokiena, beste zenbaitentzat zerbait aspergarria. Ez dakit zergatik, baiña ez dut libururik arkitu, irakur-idazketarako «txotxak» izendatzen dituanik. Bestalde, ordea, or ari dira Ikastola batzuetako Andereñoak ondoren azkar eta txalogarriak lortuaz. Ikastolaren sorrerako gauza bitxizat jo bearko ote soil-soillik? Askoz sakonago aztertzea litzake nere ustez.

Irakur-idazketa irakastekoan bide ontatik jo dutenen eskabide larria da onako au: «Gure umetxoak irakurketan trebatzeko, ez daukagu onela idatzitako ezer egokirik». Nola-nai ere, or dute liburutxo bat, aurrenetik azkenera onela idatzia, beren ardurapeko umetxoentzat irakurgai.

.....

Eta irugarren, marrazkiak. Luzaro eta sakon idatzenez ginezake marrazkieri dagokienez ere, Kortadi jaunak eman dizkigun argibide guztiak azaltzekotan. Ontan ere, ordea, zenbat korapillo! Umeentzat ez ote litzake obe, ez ote litzake liburu atsegiñagoa, beraiek egindako marrazkiz apaindua? Bestela, berriz, aurtxoan berri ongi dakiten marrazkiz egindakoak izatea ez ote litzake mesedegarriago? Korapillo askagaitza, noski.

Bigarren bidea autatu dugu Kortadi jaunaren iritzietara bilduaz. Eta orra begien aurrean. Marrazki soillak, betegarririk gabeak; marrazki utsak esan ginezake; bete-gai dirautenak. Zergatik? Dana egiñik ez ematearren. Dana bukatu eta borobildurik eman-da, zer egin aurtxoek? Onela eraturik, berriz, beren esku gelditzen da marrazkiak betetzea, nai dituzten kolorez margozea. Eta orrialde bakoitzean ere utsune aundiak zuri-zuri: Auek ere nekato-mutikoek beren naira eta gogara apaindu ditzaten.

«Liburu apala, gure erria eta gure esku-arteko dirutzak ere apalak diranez; baiña ori bai, maitasunez aberatsa. Orrelakoxea izan nai du liburu onek».

Bestalde, loturarik ipintzen ez duana: aukera uzten duana, alegia. Utsune ta eginkizun, egin-gai dauden gauza askoren aurrez-aurre jarri-erazten duan liburutxoa. Nor-berak beretik asko jarri bearrekoa; ondo betetzeko eta zatarki zirriborrotzeko arriskua jokarazten duana, gure erria ere ataka ortantxe dagonez. Liburu ezigarria eta ezitzailea izan nai duana. Lortuko ote, ezer iritxiko? Gero ageriko!, esan bear.

.....


Emen ez dioa ez oar eta ez azalpen. Auek guztiek ezitzaileentzat izan bearko lukete. Liburu au, ordea, oso-osorik umetxoentzako da. Besterentzako litzakean eraskiñik ez, beraz, umetxoen esku-liburuan! Luzaro baiño leenago azalduko dira txartel batzuk, aurrean doiñua eta atzean argibideak, oarrak, azalpenak, e. a. izango dituztenak.

Bukatzeko, orra ezitzaileen esku ipiñi, umetxoentzako esku-liburutxoa. Iru eta lau urte dituzten adiñean aixa eta mesedegarriro ikas ditzaketen abestiak eta jolas abestuak; orra, bost-sei urtetik asi eta zazpira bitarte ortan irakurgai erabil dezaketena.

Bukatzeko dauzkagun ainbat eta ainbat gauza, jakin dezagula gero-eta geiagok elkar arturik, sendotzen, aberasten eta bukatzen.

**Gaztañaga'k**

AMA



ETXEAN BA-DET AMA,  
JAINKOAK EMANA.  
ZERUAN BESTE AMA,  
ANDRE MARI ONA.  
BIEN ESKUTIK NOA  
ZERUKO AITAGANA.







## AITA

JAINKO EDERRA,  
ON-ONA ETA AUNDIA  
ZERUKO AITA:  
OIUKA ZURE AURTXOA:  
GORA JAINKOA!  
ZUREA NI OSO-OSOA!

# GABONAK


AI AU GABAREN ZORAGARRIA,  
JESUS JAIO DA BELEN'EN.  
ETXE ONETAN SORTU OTE DAN  
BILLA GABILTZA BERAREN.



# NORA ZOAZTE



NORA ZOAZTE  
ORREN ALAIRIK?  
AITA DATOR  
AMA DATOR  
BAIONA ALDETIK  
GOXOZ BETERIK.



## XAGU TXIKI


XAGU TXIKI, XAGU MAITE,  
ZULOTXOAN EGON ZAITE.  
«XAPIK» IKUSTEN BA'ZAITU  
KRIS KRAS JAN EGINGO ZAITU.  
EZ NAU JANGO,  
JANGO ZAITU.

# BARATZEKO PIKUA

BARATZEKO PIKUA  
IRU TXORTEN DITU,  
BARATZEKO PIKUA  
IRU TXORTEN DITU.  
IRU TXORTEN OIETAN,  
IRU TXORTEN OIETAN,  
IRU MILLA PIKU,  
IRU MILLA PIKU,  
IRU MILLA PIKU.



# ALDAPA GORA



ALDAPA GORA, ALDAPA BERA,  
ALDAPA GORA NEXKA-MUTILLAK,  
BAI, BAI, BAI, BAI.  
ALDAPA GORA, ALDAPA BERA,  
ALDAPA GORA NEXKA-MUTILLAK.

# IXIL-IXILIK DAUDE

IXIL-IXILIK DAUDE  
KAIA BARRENEAN  
ONTZI TXIKI POLITAK  
URAREN GAIÑEAN.




# ALA KINKIRRIÑERA

ALA KINKIRRIÑERA  
ALA XAMURRERA,  
IDOIA PLAZA BERRIKO  
BIRA ADI BESTE ALDERA.  
.....

ALA KINKIRRIÑERA  
ALA XAMURRERA,  
XABIER PLAZA BERRIKO  
BIRA ADI BESTE ALDERA.  
.....

ALA KINKIRRIÑERA  
ALA XAMURRERA,  
GUZIOK PLAZA BERRIKO  
BIRA BESTE ALDERA.







## ELURRA TELLATUAN

ELURRA TELLATUAN  
ZAKUA LEPUAN,  
IBILLI BEARKO DEGU  
AURTENGO NEGUAN.  
RAU, RAU, RAKATA PLAU.  
AU DEK UMORIA!  
UTZI ALDE BATERA  
EUSKALDUN JENDIA!

# BETI ESKAMA KENTZEN



BETI ESKAMA KENTZEN  
KENTZEN, KENTZEN, KENTZEN.  
ZER GERA GU, NOR GERA GU?  
DONOSTIARRAK GERA GU!  
ZER GERA GU, NOR GERA GU?  
EUSKOTARRAK GERA GU!

# OILLO GALDUA

OILLOA GALDU ZAIO MARI PANDANGO'RI,  
EZAUGARRIAK BA-DITU, BILLA AL BA'LEDI:  
BUZTANA DU NABARRA, MOKOA BEILLEGI,  
AREN ARRAULTZATXOAK ARILLA DIRUDI




# TILILI ETA TALALA




TILILI ETA TALALA  
KANTU GUZIEN AMA DA  
NIK NESKA TXIKI POLITA,  
IK MUTIL BIZKOR GALANTA;  
TILILI ETA TALALA.

# MARIA GOIKOA



—MARIA GOIKOA.  
—ATOZ ITURRIRA.  
—ZER DEZU, BA?  
—ZER EKARRI?  
—ZER KOLORE?

—ZER DEZU BEKOA?  
—BAIÑAN EZIN ETORRI.  
—SENARRA ETORRI.  
—ZAPATA TA GALTZERDI.  
—TXURI TA GORRI TA KIKIRRIKI.





## TXALO-PIN-TXALO

TXALO-PIN-TXALO,  
TXALO TA TXALO  
KATUTXOA MIZPIRA  
GAIÑEAN DAGO.  
BA'DAGO, BEGO.  
BEGO, BA'DAGO.  
ZAPATATXO BERRIEI  
BEGIRA DAGO.



## ZUBIRI-ZUBIRI

ZUBIRI-ZUBIRI, NUNGORI-NUNGORI,  
NUNGO ALKATE ZERADE?  
PRANTZIA'KO ERREGE JAUNAREN  
SEME-ALABAK GERADE.  
ZUBI ONTATIK URREN-URRENA PASATZEN DANA,  
EMEN GELDITUKO DALA  
EMEN GELDITUKO DALA.

# ENE TXIKI, ENE POLIT

ENE TXIKI, ENE POLIT,  
ENE MAITE ZAITUT.  
ATOZ, ZALDI GAIÑEAN  
ERAMANGO ZAITUT.

BINBILIN, BONBOLON,  
BINBILIN, BOLON, BOLOÑA,  
BINBILIN, BONBOLON,  
BINBILIN, BOLON, BOLOÑA.





# TXIRINTXANKETAN

TXIRINTXANKETAN BILBO'RA NOA  
TXIRINTXANKETAN ZER EGITEN?  
TXIRINTXANKETAN, TXIRINTXANKETAN  
BAKALLOTXO BAT EKARTEN.  
TXIRINTXANKETAN, TXIRINTXANKETAN,  
GUZION ARTEAN JATEN.




# MOX-MOX KATUKO



MOX-MOX KATUKO  
NOIZ ETORRIKO,  
AUR EDERTXO AUEKIN  
JOSTATZEKO?  
ERPE ZORROZKO  
OIK ERETZAKO  
GORDE ITZAK, AURRAK  
NEGAR EZ EITEKO.

TTUN, KURRUN, KUTTUN, KUTTUN,  
KUTTUN, KURRUN, KUTTUNA.  
TTUN, KURRUN, KUTTUN, KUTTUN,  
KUTTUN, KURRUN, KUTTUNA.  
LO, LO.  
TTUN, KURRUN, KUTTUNA.

TTUN, KURRUN, KUTTUNA



# ITSASOA LAIÑO DAGO

ITSASOA LAIÑO DAGO  
BAIONA'KO BARRARAIÑO.  
NIK ZU ZAITUT MAITIAGO  
TXORIAK BERE UMEAK BAIÑO.



ARRE ARRE MANDAKO  
BIAR TOLOSA'RAKO,  
ETZI IRUÑA'RAKO,  
ANDIK ZER EKARRIKO?  
ZAPATA TA GERRIKO,  
AIEK ZEIÑENTZAKO...?  
...ITZIAR'ENTZAKO!



ARRE ARRE MANDAKO

# ORRA OR GOIKO



ORRA OR GOIKO AREZTITXU BATEN  
KUKUAK UMEAK EGIN YOZAK AURTEN.  
KUKUAK EGIN, AMILOTZAK JAN,  
AXE BERE KUKUAREN ZORI TXARRA ZAN!  
LA LA RA, LA LA, LA LA...



## ERAGIOZU

ERAGIOZU ESKUTXU ORRI,  
ESKUTXO EDER GALANTA ORRI.  
LENEN BATERI, GERO BESTERI,  
ESKUTXO EDER GALANTA ORRI.

# ASMA ZAK

ASMA ZAK, ASMA ZAK,  
DONOSTI'N GAZTELUA'N  
LAGUN GUZIK BIRAN-BIRAN  
EMEN ZENBAT BEATZ DIRAN:

—BI.

ESAN BA'UKAN IRU,  
EGINGO UKAN DANTZAN.  
ASMA ZAK, ASMA ZAK,  
DONOSTI'N GAZTELUA'N  
LAGUN GUZIK BIRAN-BIRAN,  
EMEN ZENBAT BEATZ DIRAN:

—BAT.

EZKUTATU, TXORIAK,  
GALDU ZERATE BESTELA.  
BAT, BI, IRU... AMAR.






# TXORIETAN POLITENA



50% of wood  
1/40  
negative at 80%

TXORIETAN POLITENA  
TXANTXANGORRIA,  
MUTIL MUKITZU BATEK  
BOTA DIO ARRIA,  
ERORI DA GAIXOA  
GAIXOA ERIA.  
TXORIETAN POLITENA  
TXANTXANGORRIA.

# MENDIZALEAK AURRERA




MENDIZALEAK, AURRERA,  
GOAZEN MENDI GAILLURRERA,  
EUSKALDUNAK ESNATZERA!  
TRA LARA, TRA LARA LA.  
AUFII! GOAZEN BIDETXIORREZ  
MENDI GORANTZ MALDETATIK,  
EDERRA DA GURE ERRIA,  
MAITE DEGU BIOTZETIK,  
EZ DA LUDIAN OBERIK!  
TRA LARA, TRA LARA LA.  
EZ DA LUDIAN OBERIK!

ARRATOIA ARILLETAN  
XAGUA DANBOLIN JOTZEN,  
ASTOA TA IDIA DANTZAN,  
ZORRIA PARREZ ITOTZEN.  
TXANTXILLON ETA TXANTXILLON  
ENDIKA, KEPA TA ANTON,  
OLATZ, ITZIAR, AIZPEA,  
AU NEXKA-MUTIL TALDEA!



ARRATOIA ARILLETAN

# ZEIN DATOR EMEN




—«ZEIN DATOR EMEN  
MENDIAN GORA?»  
DIO ZAKURRAK ZAUNKAKA.  
ETA AITONAK:  
«IXO ZAKURRA,  
MENDIGOI-ZALEAK DIRA,  
ANKAK ARIÑAK  
BIOTZAK ALAI,  
OJUJU ETA ZANTZOKA  
EUSKALERRI'KO  
GAZTE BIZKORRAK  
MENDIAN GORA DIJOAZ.»

# ERNE GAUDE

ERNE GAUDE, ERNE BETI  
GURE TXULOETAN.  
TA BEIN EMEN INGURUAN  
TXINTIK EZ DANEAN,  
XO! XO! KONTU-KONTU  
IXO IXO XO! XO!  
AU DEK MAUKA  
AZKAR BIZKOR  
TTIPI TTIPI TTIPITTEN  
AUXE GAZTA ONA DEN  
TTIPI TTIPI TTIPITTEN  
ONELAKORIK EZ DEN.  
EKIN EKin XIRRI XARRA  
EKIN ALA SAIA SAIA  
KRAS! NORBAIT ZAN ATEAN,  
AIDE TXULORA!



# TINTER LANTER





TINTER LANTER  
AIL! EKARRAK ADARRA  
EINEN DAIAT TXIRULA  
ZERTAZ?  
GAZTENA LAIDA POLITAZ  
TXIRULA MIRULA KANTARI  
BALDIN BA'AIZ IZERDI,  
KRIS KRAS ATERA ADI.

1

2

3

4



## BAT, BI, IRU, LAU

BAT, BI, IRU, LAU  
BOST, SEI, ZAZPI, ZORTZI,  
BEDERATZI, AMAR,  
AMAICA, AMABI,  
AMAIRU, AMALAU,  
AMABOST, AMASEI,  
AMAZAZPI, EMEZORTZI,  
EMERETZI, OGEI.


.....  
OGEI, EMERETZI,  
EMEZORTZI, AMAZAZPI,  
AMASEI, AMABOST,  
AMALAU; AMAIRU  
AMABI, AMAICA,  
AMAR, BEDERATZI,  
ZORTZI, ZAZPI, SEI, BOST,  
LAU, IRU; BI, BAT.



## KUN-KUN

NIK EMANGO BAI,  
EZ NEGAR EGIN  
SAGAR BAT XIMEL-XIMELA,  
AMOÑA BEZAIN XIMURRA ETA  
GOXOA BERA BEZELA.  
AU JANAZ ONDO MAGALETXOAN  
ATSEGINDURIK AURRENA,  
SEASKAN LLO-LLO NERE POTXOLO  
JARRIKO ZAITUT BERELA.






TXORIÑOAK KAIOLAN  
TRISTERIK DU KANTATZEN,  
DUELARIK AN ZER JAN, ZER EDAN,  
BASOA DESIRATZEN,  
ZEREN, ZEREN  
ASKATASUNA ZEIN EDER DEN!

TXORIÑOAK KAIOLAN

# LENENGOTXU ORI



LENENGOTXU ORI  
PUNTA-BEATZ ORI,  
BESTE GUZTIEN ARTEAN  
TXIKARRA DUK ORI.  
.....

BIGARRENTXU ORI  
PUNTA-BEATZ ORI  
BESTE GUZTIEN ARTEAN  
NAGIA DUK ORI.  
.....

IRUGARRENTXU ORI  
PUNTA-BEATZ ORI  
BESTE GUZTIEN ARTEAN  
LUZEA DUK ORI:  
.....

LAUGARRENTXU ORI  
PUNTA-BEATZ ORI  
BESTE GUZTIEN ARTEAN  
BIZKORRA DUK ORI.  
.....

BOSGARRENTXU ORI  
PUNTA-BEATZ ORI  
BESTE GUZTIEN ARTEAN  
LODIA DUK ORI.

# BASATXORITXU

BASA-TXORITXU, MOKO LUZEA,  
EZ IGO ZERURA BILLA,  
AINGERUTXORIK BEAR EZKERO,  
ONA EMEN GURE MUTILLA!  
BERE MUSUA ELURRA DA-TA,  
SUA, BIOTZA TA EZPAÑAK,  
BERTON ÛRTURIK BIZIKO DIRA  
NERE BULARRA TA ZAIÑAK.





## USOA PONPORRONILLA

USOA PONPORRON-PONPORRONILLA  
ELORRIAREN ONDOAN

—GURE ALABA, GURA OTE DONA  
NEKAZARIA SENARTZAT?

—EZ AITA, EZ AMA,  
ORI EZ DA NIK GURA DODANA.

.....  
—BARATZA-ZAIA SENARTZAT?

—LEGE-GIZONA SENARTZAT?

—ARRANTZALEA SENARTZAT?

—SENDAGILLEA SENARTZAT?

—IDAZKARIA SENARTZAT?

—IGELTSEUA SENARTZAT?

—IRAKASLEA SENARTZAT?

—BURNI-AROTZA SENARTZAT?

—PITXIGILLEA SENARTZAT?

.....  
—GOXOGILLEA SENARTZAT?

—BAI, AITA! BAI, AMA!

ORIXE DA NIK GURA DODANA.



## ERROTA BERRIKO ERROMALDO

ERROTA BERRIKO ERROMALDO  
ERROTA PIKATZEN EI DAGO  
AAAA! ERROTA BERRIKO ERROMALDO.

# JOAN NINTZAN SUTONDORA

JOAN NINTZAN SUTONDORA  
TA IKUSI NUEN KATUA,  
KATUTXOAK MIAU! MIAU! MIAU!  
BIRA BESTE ALDERA.

.....

JOAN NINTZAN ATARIRA  
TA IKUSI NUEN TXAKURRA  
TXAKURTXOAK TTAU! TTAU! TTAU!  
BIRA BESTE ALDERA.

.....

JOAN NINTZAN IKULLURA  
TA IKUSI NUEN BEI ZURIA  
BEI ZURIAK MAAA!  
BIRA BESTE ALDERA.

.....

JOAN NINTZAN SAPAIRA  
TA IKUSI NUEN USOA  
USOTXUAK RUPA! RUPA! RUPA!  
BIRA BESTE ALDERA.

.....


JOAN NINTZAN EIARA  
TA IKUSI NUEN TXERRIA  
TXERRITXUAK KURRIN! KURRIN! KURRIN!  
BIRA BESTE ALDERA.


.....

JOAN NINTZAN BASORA  
TA IKUSI NUEN TXORIA  
TXORITXOAK TXIRULIRULI!  
BIRA BESTE ALDERA.

.....

JOAN NINTZAN LARRERA  
TA IKUSI NUEN ARDIA  
ARDITXOAK BEEE!  
BIRA BESTE ALDERA.





## AITA, NUN EGITEN DU?

—AITA, NUN EGITEN DU  
KUKUAK KABIA?

—TXANTXANGORRI-KABIAN  
LAPURTUZ TOKIA  
TRALA-RALA  
LAPURTUZ TOKIA.

.....  
—AMA, NUN EGITEN DU  
POXPOLIÑAK KABIA?

—GARI-SORO ERDIAN  
POLIKI JARRIA,  
TRALA-LARA  
POLIKI JARRIA.

.....  
—AITA, NUN EGITEN DU  
TXEPETXAK KABIA?

—GAZTAIN-ZULO GORDEAN  
GOROLDIOZ JOSIA.  
TRALA-LARA  
GOROLDIOZ JOSIA.

.....  
—AMA, NUN EGITEN DU  
GAU-ONTZAK KABIA?


—ELIZAKO SAPAIAN  
SAGUTXOZ JOSIA.  
TRALA-LARA  
SAGUTXOZ JOSIA.

# POPATXOAK ÑAÑAN

MUTIL TXIKI-TXIKIA ZERA ZU  
EZPAITEZU JATEN IXIL TA GOGOTSU.  
MUTIL AUNDI-AUNDI EGIN NAI BA'DEZU,  
DAN-DANETIK ASKO JAN BEAZU.

.....  
POPATXOAK ETA BABAK BAZKARITAN.  
TALO TA ESNE BEROA APARITAN.  
AU, AITATXONDAKO, AU AMATXONDAKO,  
AU KEPATXO'NDAKO, AU MIRENTXU'NDAKO  
O! AZTEN DIJOA GURE MUTILA!

.....  
MUTIL TXIKI-TXIKI-TXIKIA ZERA ZU...





# TXORI URRETXINDORRA

TXORI URRETXINDORRA  
UDAN DA KANTARI,  
ZEREN ORDUAN BAI DU  
MENDIAN JANARI.  
NEGUAN EZ DA AGERI,  
BALIN-BA EZ DA ERI,  
UDA ETOR BA'LEDI  
POZTU NAITEKE NI.





## GOAZEN MENDIRIK MENDI

GOAZEN MENDIRIK MENDI  
EUSKALDUN GAZTEAK  
GOAZEN ALDAPA GORA  
MENDIGOI-ZALEAK.  
AIZE OSASUNTSUAZ  
BIZITZA INDARTZERA,  
ABERRI GUZTIARI  
AGUR EGITERA,  
ABERRI GUZTIARI  
AGUR EGITERA!

50/07  
mugeta 45  
luego al 20%



## EUSKALDUN MAKILA

BEGIZTATUA NUEN ASPALDI MENDIAN  
MIZPIR-ONDO ZUZEN BAT SASIEN ERDIAN:  
AUNDITZERAT UTZI DUT, ETA ARREKILA  
AURTEN EGIN DUT NERE EUSKALDUN MAKILA.  
TRALA RALA, LA, LA, TRALA RALA, LA, LA,  
AURTEN EGIN DUT NERE EUSKALDUN MAKILA.

.....  
BI ERRODEN GAIÑEAN JOATEN EZ IKASI,  
BURNI-BIDETAN BA'NABIL, SABELA NAASI.  
BAIÑAN NUN DUT KARROSA? NUN DUT BEREBILLA?  
OIÑEZ BETI BA-NOA ESKUAN MAKILA.  
TRALA RALA, LA, LA, TRALA RALA, LA, LA,  
OIÑEZ BETI BA-NOA ESKUAN MAKILA.

# ETXE POXPOLA

AN URRIN ETXE POXPOLA, OLA, OLA!  
TXIMINITIK GORA KEA DARIOLA, OLA, OLA!  
GAINTXOAN ARBOLA ZELAI ERDIAN,  
ERREKA POL-POLA ETXE ATARIAN:  
TRALALA, TARA, TRALALA,  
DANA TXIKI-TXIKI-TXIKIA ORRA.

.....

JO ATETXOKO TXILIÑA, OLA, OLA!  
SUTONDOAN KUXKUR LO-LOTAN MITXIÑA, OLA, OLA!  
SUTAN DANBOLIÑA GAZTAIN ERRETZEN,  
LAPIKOA GAL-GAL BABAK EGOSTEN:  
TRALALA, TARA, TRALALA,  
DANA TXIKI-TXIKI-TXIKIA ORRA.

.....

BA-DATOR ETXEKO ANDREA, OLA, OLA!  
BEGITXOAK ÑIR-ÑIR, AOAN IRRIA, OLA, OLA!  
ZURI-ZURI ILLEA TA BURU-ZAPIA,  
ZURI-GORRI UMEA JAIO-BERRIA:  
TRALALA, TARA.....

.....

MAGALTXOAN ESTUTZEN DU, OLA, OLA!  
URRUMAKATZEN DU, URRUMAKATZEN DU, OLA, OLA!  
GURE TXIKITXOA, EGIZU LO-LO,  
LO-LO TXIKITXO BAT, APAPA GERO:  
TRALALA, TARA.....





JOLASTU GAITEZEN DANOK SOKA-JOKOAN,  
SOKA-JOKOAN, SOKA-JOKOAN,  
AURTZO EUSKOTARRARI DAGOKION ERAN,  
DAGOKION ERAN, EUSKO UTSEAN:  
BAT ETA BI, IRU, LAU ETA BOST,  
AMAR GEIAGOKIN DIRA AMABOST  
GUK BAIÑO BIKO GEIAGO EITEN BA'ITUZU,  
EITEN BA'ITUZU, EITEN BA'ITUZU,  
MARAMA APAIN POLIT BAT IZANGO DEZU,  
IZANGO DEZU, EROSTEN BA'DEZU.  
BAT ETA BI, IRU, LAU ETA BOST,  
EUN GEIAGOKIN DIRA EUN-DA BOST.

SOKA JOLASA

# ITXASOAN URAK ANDI

ITSASOAN URAK ANDI,  
TERRANOBA'RA ZATOZI:  
GOIAN OZTIÑA, BEAN URDIÑA,  
UR ETA UR BETI.


SORTERRITIKAN URRUTI,  
SENDIRIK GABE ASPALDI,  
URRUNAGO TA MAITEAGOA  
ZAITUGU LAPURDI.

.....  
UDARA ELDU ORDUKO,  
BUELTAN GAITUZU AGURO,  
TERRANOBA'KO URAK UTZITA  
BESTE URTERAKO.

JAN ETA EDAN BATEKO,  
KANTU ETA ZANTZO BESTEKO,  
ETXERAKOAN POZIK EZ BA'DA,  
GURE POZA NOIZKO?



# MOKOA GALDU DU XOXOAK



MOKOA GALDU DU XOXOAK,  
MOKOA GALDU DU XOXOA GAXOAK.  
NOLA KANTA, NOLA TXISTU,  
NOLA KANTA XOXOAK?

.....

BEGIA GALDU DU XOXOAK.  
BEGIA, BEGIA, MOKOA GALDU DU XOXOA GAXOAK.  
NOLA KANTA, NOLA TXISTU,  
NOLA KANTA XOXOAK?

.....


BURUA GALDU DU XOXOAK.  
BURUA, BEGIA, BEGIA, MOKOA  
GALDU DU XOXOA GAXOAK.  
NOLA KANTA, NOLA TXISTU,  
NOLA KANTA XOXOAK?

EGALA GALDU DU XOXOAK.  
EGALA, EGALA, BURUA, BEGIA, BEGIA,  
MOKOA GALDU DU XOXOA GAXOAK.  
NOLA KANTA, NOLA TXISTU,  
NOLA KANTA XOXOAK?  
.....

ISATSA GALDU DU XOXOAK.  
ISATSA, EGALA, EGALA, BURUA, BEGIA, BEGIA,  
MOKOA GALDU DU XOXOA GAXOAK.  
NOLA KANTA, NOLA TXISTU,  
NOLA KANTA XOXOAK?  
.....

XANKOA GALDU DU XOXOAK.  
XANKOA, XANKOA, ISATSA, EGALA, EGALA, BURUA,  
BEGIA, BEGIA, MOKOA GALDU DU XOXOA GAXOAK.  
NOLA KANTA, NOLA TXISTU,  
NOLA KANTA XOXOAK?  
.....

ENBORRA GALDU DU XOXOAK.  
ENBORRA, XANKOA, XANKOA, ISATSA, EGALA, EGALA, BURUA,  
BEGIA, BEGIA, MOKOA GALDU DU XOXOA GAXOAK.  
NOLA KANTA, NOLA TXISTU,  
NOLA KANTA XOXOAK?





# KATU POLITEN KONTUA

ORAINGO ALDIAN EGINGO DEGU  
KATU POLITEN KONTUA:  
LAN, LARA, DORAN DONIAN DON,  
LAN, LARA, DORAN DONIAN DON.

KATU BELTZAK BI UME DITU  
BIAK DIRA BELTZ-BELTZAK.  
BATA NERETZAT IZANGO DA TA  
BESTEA, BERRIZ, ZURETZAT.  
LAN, LARA, .....

KATU BELTZIK EZ DET NAI ETA  
GORDE EZAZU ZURETZAT.  
KATU BELTZIK EZ DET NAI ETA  
ZER IZANGO DA NERETZAT?  
LAN, LARA, .....

KATU TXURIAK LAU UME DITU,  
LAUAK TXURI-TXURIAK.  
BI NERETZAKO IZANGO DIRA,  
ZURETZAKO BESTE BIAK.  
LAN, LARA, .....



KATU TXURIRIK EZ DET NAI ETA  
GORDE ITZAZU ZURETZAT.  
KATU TXURIRIK EZ DET NAI ETA  
ZER IZANGO DA NERETZAT?  
LAN, LARA, .....

KATU GORRIAK SEI UME DITU  
SEIAK GORRI-GORRIAK.  
ERDIK NERETZAT IZANGO DIRA,  
ZURETZAT BESTE ERDIAK.  
LAN, LARA, .....

KATU GORRIRIK EZ DET NAI ETA  
GORDE ITZAZU ZURETZAT.  
KATU GORRIRIK EZ DET NAI ETA  
ZER IZANGO DA NERETZAT?  
LAN, LARA, .....

ASTO ZAR BAT BA-DET NIK ETA  
EZ DET BEAR NERETZAT.  
KATU POLITIK NAI EZ DUANAK,  
ASTOA BEZA BERETZAT.  
LAN, LARA, .....





Bilbo

